

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren baliabideak gure jarduera ahalik eta modu antolatuenen eta eraginkorrenen egiteko behar diren baliabideak edo bitartekoak izango dira. Horrela, instalaziorik onenak eta erakargarrienak (baliabide fisikoak) aukeratuko ditugu, diseinuan, produkzioan, modan eta bezeroarentzako arretan kualifikatutako langileak (baliabide intelektualak eta giza-baliabideak) kontratatuko ditugu eta, azkenik, enpresaren bideragarritasuna ahalbidetuko duten baliabide propioen eta maileguen bidez (finantza-baliabideak) lortuko diren beharrezko finantza-baliabideak izango ditugu eskura.